

Truly Erosketa benetan paregabeak unique Shopping

BILBAO
BIZKAIA
be basque

Euskal
nortasunarekin

- * Denon gusturako «shopping» esperientziak
- * Erosketa tradizionalak edo abangoardistak, baina paregabeak beti
- * Egin beharreko bisitak
- * Ez ahaztu maletan eramatea

BILBAO BIZKAIA

Truly

unique

Shopping



Txartel honen bidez, dirua aurrezte eta Bilbao Bizkaian egingo duzun egonaldia planifikatzean eroso egotea lortuko duzu, abantailak dituelako garraio publikoan, museoetarako sarreretan, ikuskizunetan, jatetxeetan, dendetan eta beste aisialdi-gune batzuetan. Eskatu ezazu edozein turismo-bulegotan edo hemen:

www.bilbaobizkaia.com

Edizioa: 2020ko urtarila. Bigarren argitalpena.

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Errealizazioa: Bell Comunicación

Argazkiak, turismo liburuxken bilduma: Artxiboak: Bilbao Turismoa, Bizkaia Turismoa, Basquetour, Hazi, Bell, Gonzalo Azumendi, Pedro Muñoz, Quintas argazkilariak, Gemma Arrugaeta, Mitxi, Martín argazkilaria, Asier Bastida, Bilbao Basket, CC by-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jauritaritza/Mikel Arrazola, ABAO-OLBE © E. Moreno Esquibel, CC Amélie Nollert, CC Zawp, CC Haceria, CC Infameless eta beste egile batzuk.

Inprimaketa: Encover. BI-67-2019

Asko gustatuko zaizu hemen

EROSTEA

6

Bilbao Bizkaia Card
Basque corner
Basque experience
Basque design
Denda xarmagarriak
Bizkaiko gozoak
Gourmet
Azoka txikiak
Bizkaia Eskutik



Unkitu egingo zara hauek

BISITATZEN

26

Bilbao Guggenheim
Bilbao Alde Zaharra
Bilbao Azkuna zentroa
Bilbao Kale Nagusia
Bilbao San Mames estadioa
Bizkaia zubia
Gaztelugatxe

Urdaibai
Santa Katalina itsasargia
Uribeko flysch-a
Pozalaguako kobazuloa
Gorbeia natura-parkea
eta Nerbioiko ur-jauzia
Urkiolako natura-parkea



INFORMAZIO PRAKTIKOA

50

Helbideak, telefono-zenbakiak,
estekak... Jakin ezazu den-dena



Truly unique
Shopping

Benetan PAREGABEAK

Bilboren eta Bizkaiaeren eraldaketa prozesua argi eta garbi ikus daiteke hirian eta berori inguratzen duten berdeguneetan ibili bitartean. Abangoardiako arkitektura ikusiko duzu, ondarean, kulturen eta gastronomian islatzen den nortasun errotuarekin batera naturaltasunez elkarbizitzan ikusi ere.

Bada, elkarbizitza horren emaitza da gaur egun dagoen merkataritza, ohiko produktuak saltzen dituzten saltoki tradizioaletatik hasi eta erakusleihoetan joera aurreratuenak dauzkaten dendetaraino. Edonola ere, establezimendu horiek guztiek eskaintzen dute erosketa-esperientzia paregabea.

Argitalpen honek hori guztia erakutsi nahi du. Lurralde honetan dugun eskaintza turistikoaz gozatzeko gonbidapena da, bidean aurkituko dituzun saltoki interesgarriak aprobetxatzeko aukera.

Bilbon eta Bizkaian, herri hau hain berezia egiten duten produktu hauek guztiak eskuratu ahal izango dituzu, eta gure egiteko moduaren zati txiki bat zurekin eramatea nahiko genuke.





basque corner



Bilbao Bizkaiko oroigarriak edo souvenir-ak. Produktu hauek ikusten dituzun bakoitzean, Bilbao Bizkaian bizi izandako esperientzia ahaztezina gogoratuko duzu berehala.



basque experience



Lurralde honetako produktu garrantzi-tsuenetako batzuk ezagutzea proposatzen dizugu: ikusi eta aztertu zuzenean nola sortzen dituzten ondoren dendetan egongo diren produktuak.



basque design



Bilbok elementu arkitektonikoetan islatzen ditu abangoardia eta modernotasuna. Korronte horrekin bat egiten duten produktuak erosi ahalko dituzu, euskal diseinatzaileen dendak bisitatu. Diseinatzaile horietako asko eta asko, gainera, erreferenteak dira nazioartean.



denda xarmagarriak



Betiko dendak. Antzinako ezaugarriak eusten dieten dendak dira, denboran zehar itxura eta *savoir-faire* delakoa aldatu ez dituztenak.



bizkaiko gozoak



Harritu egingo zara gozoekin, Bilbao Bizkaian gozo apartak eta bertan ekoiztuak ditugulako. Zeren zain zaude probatzeko?



gourmet



Euskal gastronomia esku-eskura. Kalitate goreneko produktuak etxera eramateko eskuratu ahal izango dituzu, baita presatutako jakiak erosi ere, egonaldian bertan dastatzeko.



azoka txikiak



Bigarren eskukoak, *vintage*-ak, diseinua... Guztia, atmosfera kulturantzun bizi-bizietan. Jende askok bilatzen duen eta joera bihurtu den esperientzia da, sekulako giroa sortzen baita beti. Hurbildu, eta seguru altxorren bat aurkituko duzula.



bizkaia eskutik



Garai modernoetara ekarritako artisautza. Altzarietarako artisten lanak, bitxiak, koadernaketak, eskulturak... Guztiek dute euskal nortasuna, eta transmitituko jakintza gaurkotua darie.



Abantailekin BIDAIATU ETA EROSTEKO txartela

8

A
GOOD
IDEA

Abantailak hiriko eta hiriarteko garraioan, baita establezimendu ugarietan erostean ere.

Gehiago dago, ordea: txartel hau zure pasaporte izango da sarrerak erostean, museoetara edo erakusketetara joatean edo turismo-jardueraren batean parte hartzean, eta, askotan, ilarak saihestuko dituzu. Eta, jakina, abantailak emango dizkizu jatetxe batzuen eskaintzetan.



BILBAO
BIZKAIA

Hori dela-eta, Bilboko eta Bizkaiko erakundeek mugitzeko modua erraztu nahi izan diete bisitari guztiei, **hiriko eta hiriarteko garraioan** abantailak eskainiz, **Bilbao Bizkaia Card txartelaren bidez**.

Bilbao Turismoaren bulegoetan eskuratu besterik ez duzu egin behar, edo bidaia egin aurretik erreserbatu.

<http://www.bilbaobizkaia.com/eu/erreserbak/>

Bilbao Bizkaia Card erabiltzea da Bilbotik eta lurralde osoan mugitzeko eta erakargune turistiko guztiak ezagutzeko modu adimentsuena. Txartela erabilia, dirua aurreztuko duzu garraio publikoa modu mugagabearekin erabiltzean. Gainera, gure bazkideen eskaintzei esker, promozio esklusiboez gozatu ahalko duzu.

Bilbao Bizkaia Card txartelak garraiobide hauetarako sarbidea ematen du:

Trenak: Metroa, tranbia eta Euskotren (Bizkaiko ibilbideetan)

Autobusak: Hiriartekoak (Bizkaibus), Bilboko hiri barrukoak (Bilbobus)

Kabledunak: Artxandako funikularra, Larreineto funikularra.

Bestetik, oso pasaporte interesgarria da **erosketak egiteko** orduan, deskontu eta eskaintza bereziak izan ahalko dizulako.

Izan ere, **deskontuak izango dituzu museoetan, bisita gidatuetan, jatetxeetan, dendetan eta jarduera turistikoetan**, eta Guggenheim museora edo Arte Ederren Museora sartzeko ilarak murriztuko dituzu.

Eskuratu bat, eta atera probetxu handiagoa zure bisitari.



9

Liburuxka honen zerrendetan agertzen diren dendak BBCARD txartelarekin atxikita daude.



NORTASUN propioarekin

Nortasuna, tradizioak eta modernotasun erabatekoena nahasten dituen kulturak ezaugarritzen du Bilbao Bizkaia. Horrekin bat eginez, egokia iruditu zaigu «Shopping concept» deitu duguna prestatzea. Oroigarrien dendetan, museoetako saltokietan edo zenbait turismo-bulegotan, euskal nortasuna irudikatzen duten produktuak aurkituko dituzue; besteak beste, jantzi tradizionalak, artisautza-produktuak edo diseinatzaile garaikideek egindako lanak.



Baliteke pentsatzea oroigarriak **souvenir-en** dendetan erostea baliabide klasikoena dela. Alabaina, horrelako dendak ikusten dituzunean, gure eskaintza nortasunari loturikoa eta esentzia pertsonalduna izatea nahi dugula egiaztatuko duzu.




Adibidez, **txikito-basoak** (tabernetan txikiteoa egiteko erabiltzen zirenak) edo **herri-kiroletako** tresnen miniaturazko erreproduktzioak (besteak beste, harri-jasotzaileak, aizkolariak edo pilotariak).



Gure itsas tradizioa **arrantzaleen arropan** edo Bizkaiko kostaldean ikusiko dituzun **itsasontzien** erreproduktzioetan islatzen da.

Garaikidea atsegin dutenentzat, ideia ona izan daiteke **arkitektura-liburuak** edo **artelanen erreproduktzioen bat** eramatea, **museoetako dendetan aurkituko dituzuen bestelako produktu berezietan gain.**

Zenbait **turismo-bulegotan**, oso bertakoak diren produktuak daude; adibidez, **zeramika herrikoia** edo **Bilboko baldosa** ospetsuaren erreproduktzioak, edozein euskarritan, txokolateetatik hasi eta zetazko musuzapietaino.



Esperientzia paregabea da **Bilboko Athletic Club-en** museoan edo klubaren denda ofizialetan sarturik egitea. Izan ere, zeurekin eramanez izango duzu XIX. mendean sorturiko klub ezagunaren oroigarria; hala nola, San Mames estadioaren soropil zati bat edo maketa bat, baloi bat edo pelutzezko lehoi bat...

A
GOOD
IDEA!

Zuri-gorrian



ZAPOREAK jatorrian

Herrialde edo eskualde baten nortasuna ezagutzeko modurik onena bertako merkatuak ezagutzea da, produktu garrantzitsuenak eta horiek ekoizteko moduak ezagutuz. Horregatik, ez ahaztu nekazaritza- eta abeltzaintza-azoka batera edo hornidura-merkatu batera joatea; gainera, batzuek 100 urte baino gehiago dituzte.

Azoketan, bada, saltzaileek aukeratzeko dakitenei beti onena eskaintzeko gogoia dutela ikusiko duzu. Bizkaiko baserrietako eta Kantauri itsasoko produktu horiek dendetara nahiz azoketara nola iristen diren edo nola ekoizten diren jakin nahi duzu? Dudarik gabe zer probatu behar duzun jakin nahi duzu? Segi irakurtzen...

Gorka Izagirre upeltegia (Larrabetzu)



Antxoak



"Game of Thrones" telesailaren eszenatokiak bat bisitatzeko duzunean, hots, Gaztelugatxe ermitara joaten zarenean, aprobetxatu Uribe Kostan, Urdaibain edo bi eskualdeen barrualdean **txakolin-upategiren** bat adituena laguntzarekin ezagutzeko, denak baitira kalitate bikainekoak.

Artisau-garagardoaren zalegoa bazara, berriz, Uribe eskualdean, Enkarterrietan edo Bilbon bertan ikusi ahaliko duzu bere elaborazio prozesua, eta askotariko barietateak dastatu ahaliko dituzu.



A
GOOD
IDEA!

Zuzen-zuzenean

Bada, proposatu dizugun azoka-ibilbidean nahiz elikagai-denda askotan erosi ahaliko dituzu produktu horiek, baina baita euskal nortasuna osatzen duten eta hemengo sukaldaritza bikainaren oinarria diren bestelako produktuak ere; hala nola, **eztia, hestebeteak, txokolateak, piperrak edo frutak eta barazkiak**, zeinetariko askok kalitatea ziurtatzen duen **label-zigilua** duten.



Idiazabal gazta

Gernikako azoka



tokiko zigiludun SORMENA

Bilbotik ibiltzean, munduari irekita dagoen hiria dela ikusiko duzu, non arkitektura- nahiz diseinu-arloko joera berriak korronte garaikideak islatzen dituzten. Eta guzti horrek azken modako bizi-estiloa ehuntzen du jaialdien, musikaren eta bizimodu berritzaileen bidez, eta moda-, osagarri- eta arte-sorkuntzan islatzen da hori.

Are gehiago dago, ordea. Hiriak eta, ondorioz, lurraldeak Guggenheim Bilbao Museoa abiatu zenetik bizi izan duten birsorkuntza-prozesua merkataritza-lokaletara eramana da, abangoardiako arkitekturaren eta dekorazioaren bidez. Bada, lokal horiek bisitatzea merezi du, eta, jakina, bertan erosketaren bat egitea.



Lauburu

Zergatik



Eguzkilore

Egunero-egunero joera berrien alde sortzeko eta bizi diren lurraldearen nortasuna markatzen jarraitzeko ahalegina egiten dutenei aitortza eginez, Bilbao Bizkaiko abangoardia osatzen duten dendak eta galeriak iruzkindu nahi ditugu.

Bilbao, Abandotik, Indautxutik, Kale Nagusitik eta Alde Zaharretik zeharkatu edo Bizkaiko herrietatik ibili besterik ez da egin behar, **ehunetan, arropetan** eta **osagarrietan benetako diseinuak ikusteko.**

Euskal sinboloak eta grafiak (hala nola, eguzkiloreak eta lauburuak) erreproduzitzen dituzten edo bitxi eskusiboak diseinatzen dituzten **bitxi-dendak** daude.

Bilbao bezalako hiri batean, hain dotorea izaki, modako **diseinatzaileak** daude, sormenaren sinbolo direnak eta, askotan, dendak beren markarekin zuzentzen dituztenak.

ART DISTRICT

Munduko **arte-galeria** garrantzitsuenetarikoa batzuk dauzkan herribarrutia da hau; besteak beste, hauek topatuko dituzu bertan: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Itsasmuseum Bilbao, Argazkigintza Garaikideko Zentroa, Azkuna Zentroa, Rekalde aretoa, Bilbao Arte, Athletic Club museoa...

Art District deiturikoan agertzen dira abangoardiako artea eta kultura. Ibil zaitez bertatik, zure gustu artistikora gehien hurbiltzen den estiloa aurkituko duzunaren segurtasunarekin.



Matia bitxi-denda



Michel Mejuto galeria

A
GOOD
IDEA !



BETIKOAK

Denda hauetara sartzen zarenean, orainean dagoen iragan bateko usainez, koloreez eta oroitzapenez beteko zara, eta zauden tokiko esentzia guztia sentituko duzu.

Kontserbez gainezkaturiko apalategiak, hestebeteak eskegita, leka-leak soltean, bakailaoak gatzetan, botikak zeramikazko ontzietan, txapel- edo abarketa-dendak... Atsegin handiz ongietorria ematen dizuten eta asko-askotan negozioaren tradizio ikasia abizenean daramaten pertsonen eszenatokietako irudiak dira horiek.

Los jaboneros

Bilboko Alde Zaharretik edo Bizkaiko herrietako hirigune historikoetatik ibiliz gero, horiek ezagutzeko aukera izango duzu.

Bilbon, eta **gastronomiari** dago-kionez, López Oleaga edo La casa del Bacalao dituzu. Zuricaldy, New York edo Nevada gozotegiak ahaztu gabe.

Farmazietan, Bilboko Cebreiro bisitatu ezazu, «Farmaziaren museotxoa» ere esaten baitiote.

Nevada gozotegia

Hirian eta herrialdean ibiltzen bazara, beste **denda xarmagarri** batzuk topatuko dituzu, eta, horietan, produktu euskaldun peto-petoak erosi ahalko dituzu (adibidez, Hadalondi dendan), edo abarketak Bizkargue-nagan eta euritakoak Leoz-en.

Halaber, oso hemengoak dira frontoiko jolasetan ibiltzeko tresnak (hala nola, pilota eta zesta) eta musika-instrumentu batzuk (dulzaina, alboka eta txistua).

Dena dela, eskaintza beste sektore askotara iristen da, jakina. Besteak beste, hortxe dauzkagu **saski-dendak, burdindegia, lanpara-dendak, ardotegia eta jaki-dendak, mertzeriak, lurrindegia, ehun-dendak...**

Hadalondi

Museíto Colón farmazia



Kultura paperean, eta azokaz azoka

Betiko liburu-dendak ondo gordetako altxorrak dira.

Alabaina, ugariak dira Bizkaia osoa zeharkatzen duten liburu-azokak ere. Hala, martxoan Mungian eta Bermeon egiten da liburu-azoka; apirilean Barakaldon, eta maiatzan Santurtzin, Ermuan eta Bilbon. Urrian, liburu zaharren azoka egiten da Bilboko hareatan, eta euskarazko liburuak topa daitezke abenduan Galdakaon egiten den azokan eta Durangoko azoka ezagunean.



tentazio GOZOA

Gozozalea bazara edo oroigarri gisa eramateko apartak iruditzen bazaizkizu, zorte oneko zaude. Bilbok eta Bizkaia, oro har, non hautatua edukitzeko sorta zoragarria eskaintzen dizute. Gozo eta postre ezberdinak, bereziak, ohikoak askotan, baina bikainak gehien-gehienetan.

Gainera, batzuek istorio politak daukate atzean, eta are misterio-tsuagoak eta desiragarriagoak egiten ditu horrek. Adibidez, bazenekien arroz-pastel ezagunak euskal marinelei zor diela izena? Izan ere, euskal marinekin etorri zen errezeta arroz-irinarekin egiten zen. Gaur egun, Bizkarra gozotegiek jatorrizko errezeta berreskuratu dute, eta irin horrekin egiten dituzte pastelak.



Arroz-pastela

Karolina pastela



Kokoteak

Malba-gozokia



Karolinarena ere istorio polita da. Txokolatez eta arrautzez bustitako merengezko espiralak berori asmatu zuen gozogilearen alabari zor dio izena, haren urtebetetzerako asmatu baitzuen. Bada, gaur egun, Bilboren sinboloa da.

Gozogintza bilbotarraren ikur esanguratsuak dira, halaber, **errusiarrek, jesuitak, kristinatarrak** eta **gurinezko opil** ospetsuak.



Euskal pastela



Gurinezko opila

Bizkaia guztian topatuko duzu euskal pastela, klasikoetako beste bat da eta.

Era berean, klasikoak dira **malba-gozokiak**. Bada, eztarriko minerako oso komenigarriak dira, eta Santiago Ollarbide sortzailearen ilobaren izena daramate oraindik ere bilgarrian jasota (hortik datorkie «**santiagotxo**» izen herrikoia). **Txokolatezko trufak, Begoña tarta** edo **Gernika tarta** ere dastatu beharreko postre zoragarriak dira.

Ori-Baltzak



Gernika-Lumora joaten bazara, duda gabe erosi beharko zenituzke **ori-baltzak**, txokolate zuritan edo beltzetan bustitako bizkotxo txikiak.

Zornotzako **anis-erroskillak**, Durangoko edo Elorrioko **artopilak**, Karrantzako **gurinezko pastak**... Bizkaiko herri eta eskualde guztiguztietan aurkituko dituzu munduko beste edozein tokitan ikusiko ez dituzun jateko onak. Guztiak dastatu nahiko dituzu!

Gabonetan, ez ahaztu turroi-denda tradizioaletara bisita egitea, **sokonuskoa** probatu dezazun (txokolatezko turroi bat da, ohikoa Bizkaian).

A
GOOD
IDEA!

Monasterioko gozoak

Beti esan izan da bizitza jaungoikoari ematen diotenen gozo jainkotiarrek egiten dituztela. Hori dela-eta, ez ditugu Elorrioko Santa Ana komentuko bizkotxoak (**mosta-txoiak**) eta Ziortza-Bolibarreko Zenarruza monasterio historikoko **frutazko bonboiak** ahaztu behar.





GUSTU ONA dutenentzat

Gastronomia, erlijioa den toki batean, ezin zitekeen gourmet-produktuak saltzen dituzten denden eskaintza faltatu.

Elikagaiez betetako tenpluak dira, eta askotan, hurbil edo tokian bertan egiten dituzte produktuok; besteak beste, kontserbak, gaztak edo jatorri-deitura duten txakolinak eta sagardoak.

López Oleaga



Txakolina

Ezaguna da Bizkaiko kostaldeko **itsas kontserbek** duten kalitatea.

Besteak beste, Ondarroan eta Bermeon hegazu- eta antxoak-kontserba ugari ekoizten dituzte, latan nahiz potean, eta gero gure bazkari eta afarietan gozaten ditugu.

Nola egiten dituzten ikusi ahal izango duzu inguru horietako fabriketan.



Antxoak



Idiazabal gazta



Piperminak



Gernikako babarrunak

Baratzeko produktuetan, **lekaleak** eta **pipermin** ezagunak ditugu, eta, freskoetan, **Gernikako piper-rrak** eta **babarrunak** edo **Zallako tipula** gorriak.

Bakailaoa, Bizkaiko mahaletako erregea da (pil-pilean, ajoarriero erara, bizkaitar erara, club ranero erara... jan daiteke), eta gatzituta, kontserban edo dagoeneko eginda eta etxera eramateko prest topatu ahalko duzu.

Gure **gaztek**, Idiazabal jatorri-deitura dute, eta nazioarteko hainbat sari irabazi izan dituzte.

Halaber, dasta ezazu **mamia** Gorbeiaiko **eztiarekin** batera.

Eta, hori guztia bustitzeko, Arabako Errioxa eskualde hurbileko **ardo** bikain bat, hemen egindako **artisaugaztagar** bat, **Bizkaiko txakolina** edo **sagardo** hotz-hotza edan ditzakezu.

Etiketarekin

Eusko Label «kalitate goreneko elikagaiak» izendapena duten produktu asko ikusiko dituzu, eta horrek esan nahi du jatorria eta kalitatea ziurtatuta dauzkatela; besteak beste, jaki hauek edukitzen dute deitura hori: behi-haragiak, arkume-haragiak, iparraldeko hegazuak, eztiak, baserriko arrautzek, tomateak eta letxugak, babarrunak, sagardo naturalak, txerri-haragiak eta oliba-olioak.

Goza itzazu, «berme» osoarekin.





KALEAN BERTAN, eta bigarren eskukoá

Aho zabalik utziko zaituen ustekabeko pieza berezi hori aurkitu nahi baduzu, begiratu eta arakatu. Hemen, aire zabaleko merkatuekiko zaletasun handia dago, baita bigarren eskuko dendekikoa ere, sorpresa hori topatu arte giro bitxietan barrena une dibertigarri bat igarotzeko aukera ematen dute-eta. Bilbon, **Plaza Barrikoa** dago, non filatelistak, numismatikariak eta maskoten, harribitxien eta bigarren eskuko liburu, disko eta komikien saltzaileak biltzen diren. Igande goizean egiten da azoka, eta, halaber, txakolin gozo bat eta pintxoren bat hartu ahalko duzu plazan.

22



Maiatzak bi kaleko azoka

Hala ere, Bilbok badu bestelako aukera bitxirik ere:

Maiatzaren 2ko azoka txikia hileko lehenengo larunbatean egiten da, Bilbao Zaharra auzo berpiztuko kale horretan. Bertan, *vintage* arropa, artisautza, gauza zaharrak... aurki daitezke.

Loreen azoka. Usainez eta kolorez josia. Igandero, Bilboko hareatzan.

Gure Lurreko Merkatua. Bilboko Udalak, Bizkaia mendik eta Slow Food Bizkaia abiatu dute, eta, bertan, Bizkaiko ekoizleek hartzen dute parte. Larunbatero, sasoiko produktu zoragarriak erosi ahalko dituzu.

Boluetako azoka txikia igande goizetan egiten da, eta bigarren eskuko gauzak aurkitu ahalko dituzu bertan; hau da, jada erabiltzen ez diren baina egoera onean dauden gauzak edo arropak.

Open Your Ganbara, Artiach gailera-fabrika zaharrean. Bigarren eskuko «arkakusoen azoka» hau igandero egiten da.

Zawp gunea (Zorrotzaurre Art Workin Progress). Hau ere igandeetan egiten da. Abangoardiako artea, aisialdia eta ikuskizunak konbinatzen dira bertan.

Plaza Barria. Plaza Barriko arkupeetan, igandero trukutzen dira txanponak eta zigiluak, eta gauza nahiz liburu zaharrak saltzen dira.

Gabonetako azoka txikia. Abenduan, Gabon-kanten artean, Gabon- nahiz artisau-produktuak erosteko aparta.

23



Plaza Barria



Hiriko trendy-ena

Gauza zaharren azoka txikiak, bigarren eskuko gaiak erosteko aukera ez ezik, zokoratutakoari bigarren aukera emateko gai diren artista eta diseinatzaileentzako inspirazio-iturria ere badira, vintage-a modan baitago orain.

Euskal diseinu garaikidea, **ESKU ONEN UZTA**



Errotiko nortasun propiodun artisautzaren bidez nortasun kultureko elementuak ezagutzeko, kuriositatea pizteko eta ikusi, ukitu edo erakustearekin bakarrik Bizkaira makina bat aldiz itzultzea ahalbidetuko dizuten loturak eta emozioak sortzeko modu berezi eta desberdina da hau.



Bizkaia Eskutik euskal kulturaren eta tradizioaren zatitxo bat erosteko aukera da.

Txalapartatik hasi eta Kantauriko baleetaraino. Flysch-etatik ardi latxaren artileraino. Euritik gaztara. Burdinatik ezki loratuetara. Arrantzaz-sareetatik abereen zintzarri. Objektu guzti-guztiak dira gure historiaren kontakizun txiki bat, eta iraganeko mundutik bidaia emozionala egitera gonbidatzen dute, baina ez han geratzera.



Duen formatu berritzaileari esker, artisautzaren eta diseinuaren munduko profesionalen arteko lankidetzan oinarrituta baitago, **Bizkaia Eskutik** ez da gauza ezagunen gaineko irakurketa garaikidea egitera mugatzen: etorkizunari ateak irekitzen dizkio. Esperientziak, zentzumenak, emozioa edo sorpresa bidaiaren ezinbesteko zati izango diren etorkizunari, beti ere.



DendAZ-This is Basque Design

Azkuna zentroaren atarian kokatutako gune berria da, euskal diseinuko profesionalen eta enpresen lana ikusgarri egin eta gizartearekin loturak sortzeko asmoa duena. Erakusketa-aretoaren, dendaren eta ekitaldi nahiz lantegietarako eremuaren artean, Bizkaia Eskutik produktuak aurkituko dituzu.

Arrikibarren plaza 4. Bilbao
Urte osoan irekita.
Ordutegia: 10:00etatik 21:00etara
dendaz.azkunazentroa.eus/



Aerre gunea

Bilboko itsasadarraren ertzean, Guggenheim museoaren parean kokatutako gune txikia da hau, eta erreferentzia bihurtu da diseinuaren, artearen eta ilustrazioaren zaleentzat. Tokiko profesionalen diseinu propioa duten produktuak eskaintzen dituen denda egoteaz gain (produktu horien artean, Bizkaia Eskutik egitasmoan garatutakoak dira batzuk), artisau-grafikarekin eta -edizioarekin zerikusia daukaten erakusketak eta lantegiak antolatzen dituzte aldizka.

Unibertsitateen etorbidea 2. Bilbao
Ordutegia: As/Or 10:00-14:00; 17:00-20:00
L 11:00-14:00

www.facebook.com/EspacioAerre/

Truly unique
Shopping

Unkitu egingo zara hauek

BISITATZEN

BILBAO
GUGGENHEIM

1

BILBAO
ALDE ZAHARRA

2

BILBAO
AZKUNA ZENTROA

3

BILBAO
KALE NAGUSIA

4

BILBAO
SAN MAMES

5

BIZKAIA
ZUBIA

6

GAZTELUGATXE

7

URDAIBAI

8

SANTA KATALINA
ITSASARGIA

9

URIBEKO
FLYSCH-A

10

POZALAGUAKO
KOBAZULOA

11

GORBEIA ETA
NERBIOIKO
UR-JAUZIA

12

URKIOLA

13



Planifikatzen ditugun bidaietan, erosketak egitea da jarduera erakargarrienetako bat, zalantzarik gabe.

Gainera, toki bakoitzaren inguruaz, paisaiatz edo gastronomiaz gozatzen badugu, askoz ere hobeto.

Hori dela-eta, Bilbao Bizkaia ezagutzeko galdutuz ezin ditzakezun ezinbesteko tokiak eta toki bakoitzean eros ditzakezun gauzak nahiz toki horien inguruan bizi ditzakezun esperientziak proposatzen dizkizugu hemen.

Inguratu zaitez naturaz, senti itzazu itsas brisa edo hondartzako eguzkia, goza ezazu munduko sukaldaritza onenetako batez eta bizi ezazu historia, gure ondare aberatsaren bidez.



Bilbao osoa da zoragarria erosketak egiteko. Eremu bakoitzak bere berezitasunak dauzka, baina dendarak askotarikoak dira beti: tradizionalenak, gozozaleenentzako direnak, diseinukoak, xarmagarriak eta bitxiak edo benetan guzua dena saltzen dutenak.

Hemen, eremuak markatuko dizkizugu, baina ibilbidea zuk zeuk erabakiko duzu.

- GUGGENHEIM**
- ALDE ZAHARRA**
- AZKUNA ZENTROA**
- KALE NAGUSIA**
- SAN MAMES**

Hiri berriaren ERREFERENTEA

Mundu guztian ezaguna den eraikinak hiria itsasadarretik zeharkatzen duen itsasontzi-itxura du. Eraikin distiratsua titanioz eginda eta abangoardiako artez beteta dago, eta orain dela urte asko Bilboko industria-guneari gorteko lekuaren protagonismoa hartu du. Guggenheim Bilbao Museoa, Frank Gehryren maisulanetako bat da, zeina erraz ezagutzeko moduko diseinu ausartengatik den ezaguna. Bisita kultural eta artistikoarekin jarraituz, Bilboko Arte Ederren Museoa bisitatu dezakegu. Arkitektura klasikoa du, kutsu garaikideaz zipritinduta, ordea. Bada, nazioarteko arte-bilduma paregabea dauka. Hala, kalitate eta diseinu handiko galeria eta saltokiak dituen arte-zirkuitu batera sartzen zara hemen..

Guggenheim Bilbao Museoa



Guggeheim Bilbao museoko denda



basque corner

BILBOKO ARTE EDERREN

Museo plaza 2, BILBAO
www.museobilbao.com
944 39 60 60

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Abandoibarra etorbidea 2, BILBAO
www.guggenheim-bilbao.eus
944 03 91 37

RECUERDA BILBAO

Iparragirre kalea 1, BILBAO
www.recuerdabilbao.com
656 70 97 02
Mazarredo zumarkalea 65, BILBAO
www.recuerdabilbao.com
656 70 97 02

IRRINTZI BI

Iparragirre 1, BILBAO
944 246 311



basque design

MICHEL MEJUTO GALERIA

Arte-galeria
Juan Ajuriagerra 1, BILBAO
www.michelmejuto.com
944 23 69 98

JUAN MANUEL LUMBRERAS GALERIA

Erakusketa-galeria
Henao 3, BILBAO
www.galerialumbreras.com
944 24 45 45

VANGUARDIA GALERIA

Mazarredo zumarkalea 19, BILBAO
www.galeriavanguardia.com
944 237 691



bizkaiko gozoak

BIZKARRA

Gozotegi eta okindegia
Henao 27, BILBAO
www.bizkarra.com
944 23 79 85

DASTAKETA GOZOTEGIA

Mazarredo zumarkalea 20, BILBAO
www.pasteleriadastaketa.com
944 029 784



denda xarmagarriak

LA CASA DEL BACALAO (Serantes taldea)

Mazarredo zumarkalea 79, BILBAO
www.restauranteserantes.com



gourmet

MANU MARTÍN ARDOTEIA

Ardo-salmenta
Lersundi kalea 15, BILBAO
www.vinotecamanu.com
944 13 22 30



Bilboko Arte Ederren Museoa

BILBAO ALDE ZAHARRA

taupadak
markatzen dituen
BIHOTZA

Ezinbestekoa da Bilboren bihotza ezagutzea. Hiriko Alde Zaharra duela 700 urte baino gehiago sortu zen, eta hiriaren funtsa eta ikurra da. Txoko eta bazter guztietan istorioak gordetzen dituzten eraikinez eta kaleez jositako ibilbidea da. Oroigarri-dendetan, denda sortzaileetan eta betiko dendetan erosketak egin bitartean, Santiago katedrala eta Plaza Barria ikusi ahalko ditugu. Azken hori Bilboko gune nagusia izan zen antzina, baina oso garrantzitsua izaten jarraitzen du, bertako merkatu txikiak, xarmaz beteriko denda txikiak eta, noski, taberna eta jatetxeak direla-eta. Mallonako galtzadetatik, Begoñako basilika entzutetsura iritsiko gara. Eta, indarrak berreskuratzeko, pintxo ospetsuetako bat jan dezakegu, txikito bat edo txakolina edan bitartean.

Santiago plaza

Erriberako merkatua

BILBAO
BIZKAIA



basque corner

ARKEOLOGIA MUSEOA
Mallonako galtzada 2, BILBAO
www.bizkaikoa.bizkaia.es
944 04 09 90

RECUERDA BILBAO
Bilboko oroigarriak
Bidebarrieta 3, BILBAO
www.recuerdabilbao.com

ORRIAK
Bilboko oroigarriak
Artekale 54, BILBAO

EUSKAL MUSEOA
Migel Unamuno plaza 4, BILBAO
euskal-museoa.es
944 155 423

BILBOKO BERREGINEN MUSEOA
San Frantzisko 14, BILBAO
www.bilbokoberreginenmuseoa.es
946 790 255

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
Enkarnazio plaza 9B, BILBAO
eleizmuseoa.com
944 320 125



basque experience

ERRIBERAKO MERKATUA
Erribera kalea z/g, BILBAO
www.bilbaoturismo.net
944 79 06 95



basque design

MAL DE OJO OPTIKA ATELIER
Erronda 33, lokala, BILBAO
www.optikamaldeojos.com
946 02 96 76

RZIK
Posta kalea 25, ezk. Izkina, Alde Zaharra, BILBAO
www.rzik.es
944 04 75 87

ZERGATIK
Victor 4, BILBAO
www.zergatik.com/ea
946 79 20 08

MATIA BITXI-DENDA
Erribera 19, 1., BILBAO
www.joyeriamatia.com

PERODRI BITXIGILEAK
Bidebarrieta 7, BILBAO
www.perodri.es
944 15 23 68

BIZKARGUENAGA OINETAKOAK
Goienkale 8, BILBAO
www.calzadosbizkarguenaga.com
944 16 12 40

APARTÉ
Loteria 2, BILBAO
944 15 17 78

RAMÓN EZKERRA
Posta kalea 23, BILBAO
www.ramonezkerra.com
944 15 14 88

SKFK
Victor 5, 23, BILBAO
946 05 49 55



denda xarmagarriak

LOS JABONEROS
